

IZENDEGIA
DICCIONARIO DE NOMBRES VASCOS
DICTIONNAIRE DES PRÉNOMS BASQUES (*)

Egilea: Xarles Bidegain (euskaltzain urgazlea)
Elkarlanean, S.L., 1999

1999-X-21

Egileak *Aitzin-Solasean* honela dio “Euskal izenen zerrenda berri hau eskainiz, jendeen eskuetan ezartzen dugun liburu honek hurgune edo eskas bat bete nahi luke”. Jose Maria Satrustegiren izendegia “ezin utzizko erreferentzia” dela aipatu ondoren, “beste aro ete beste egoera batean heldu da gure liburua” gaineratzen du.

3.000 inguru sarrera dituela dioen *Izendegian*, Bidegain jaunak, gure ustez, hutsunea eta eskasia bete eta aro berri bati erantzuna eman beharrean, gauzak zeuden baino askoz ere okerrago eta nahasiagoak utzi dizkigu.

Hona hemen esaten duguna frogatzen duten zenbait arrazoi:

1. Gizon eta emakume izenen arteko sexu bereizketaren oinarritzko printzipioa (1) hausten du:

a) Liburuaren sarreran honela dio: “ez ahantz badirela berdin nexka-izenak edo mutiko-izenak izaiten ahal direnak”. Eta ildo horretatik, liburuan zehar hainbat izeni bi sexuen marka (g./e.) espresuki jarri dio, hala nola, Amaiur, Bela, Izaro, Izarraitz, Nabarra, Olatz, Oroitz, Pizkunde, eta abarri.

b) Izenen sexu bereizketa egiteko ez du inolako irizpiderik azaltzen eta, horren ondorioz, kontraesanek josiak agertzen dira egiten dituen sexu bereizketak. Hona hemen adibide bakar batzuk:

Alba (g.), Albire (g.).

Alex (g.) eta Alesko (g.).

Amorosa (e.), baina Amuruza [Amorosaren aldaera dela dioena] (g.).

Anaiansi [Anaia (g.) eta Anso (g.) izenez osatua dela dioena] (e.).

(*) Oharra: X. Bidegain jaunak Alfonso Irigoieni eskaintzen dio liburua.

(1) Konbentzionala bada ere Hegoaldeko erroldek argi adierazten dutenez erabat geureganatu duguna.

Arze (e.), Arzeiz (e.).
 Atallo [Nafarroako herri izena] (e.) eta Atalla (g.).
 Betisa (e.), Betsia (e.), Betriska (g.) [Hirurak Petri-ren aldaerak].
 Orio (g.) eta Auriko [Orio-tik eratorria dela dioena] (e.).
 On (g.), Ona (g.).
 Ordun (g.), Orduna (g.).
 Patrizia [Patrizio (g.)-tik eratorrika dela dioena] (g.).
 Perutxa (e.), Peruxa (g.), Petruska (g.).

c) Toponimoetatik hartzen dituen izenen, sexu bereizketak inolako irizpiderik gabe egiten ditu. Hona hemen lekuko batzuk:

Altzaga [Gipuzkoako herria] (g.).
 Alkain [Gabiriako leku izena] (e.).
 Araitz [Nafarroako ibarra] (e.).
 Aratz [Arabako mendi izena] (g.).
 Araoz [Oñatiko auzoa] (e.).
 Aizaroz (sic) [Nafarroako herri izena] (g.).
 Atotz [Eraulgo toki izena] (e.).
 Olaitz [Nafarroako herri izena] (e.).
 Olaiz [Olaitz-etik eratorria dio] (g.).
 Oloriz (sic) [Nafarroako herri izena] (e.).
 Ondi [Leioako auzoa] (e.).
 Orbaiz (sic) [Nafarroako herri izena] (e.).
 Orrao [Arbeizako toki izena] (e.).
 Oskitz [ez du azalpenik ematen] (g.).

2. Izen baten aldaera guztiak, txikigarriak izan ezik, ontzat ematen ditu izen ofizialak izateko. 8. orrialdean honela dio: “Gurasoek dokumentu ofizialtarako izen batek duen forma betea, eta ez ttipitzailea, hauta dezakete”. Petri izenaren kasuan honako aldaera (ez “ttipitzaile”) hauek guztiak ematen ditu: Pedre, Pedro, Pedruelo, Pegen, Peidro, Peiel, Peire, Peiret, Peiro, Peiron, Peirona, Peirot, Peirotón, Peitro, Peitroko, Pele, Pelento, Peo, Per, Pere, Peri, Periko, Perikon, Perin, Perisko, Periso, Peritz, Peritza, Periz, Pero, Peron, Perona, Peronin, Peronina, Perotx, Perotza, Perox, Peru, Peruko, Perul, Peruski, Perute, Perutxa, Perutxo, Perux, Peruxa, Petiri, Petra, Petriko, Petritoa, Petro, Petrox, Petruska, Pette, Pexiri, Pexit, Piarres, Pier, Pierra, Pierret, Pierru, Beti, Betiri, Betirito, Petisa, Betixa, Betiza, Betri, Betrun, Betti, Bettiri, Bettiritto. Bidegain jaunak, zerrenda luze honetan ez du izen “ttipitzaile”rik aurkitu. Beraz, Pedruelo, Peitroko, Periko, Perisko, Peronin, Peruko, Petriko, Betirito... Beraz, aldaerak direnez, izen ofizialtzat hauta daitezke, Pello ordea, “ttipitzailea” denez, ez.

3. Izen txikigarri eta hipokoristiko asko ez ditu “ttipitzaile”tzat hartzen, aldaeratzat baizik. Besteak beste, hurrengo hauek: Alexko, Antxiko, Johanko,

Johando, Johango, Johangote, Johanika, Johanikot, Johaniku, Johanko, Johankoxe, Johantxe, Juhanko, Joxin, Juxta, Kalixto, Koxe, Koxepa, Koxepa, Koxu, Mielgo, Mielko, Migeltxe, Mikeleko, Mixelko, Mitxelko, Mixelkoxe, Otxandako, Otxoko, Otxoxo, Santxoko, Toanxe, Txurdintxo, Xabi, Xante, Xanti, Xanto, Xantxo, Xantxon, Xantxun, Xurdin... Hortaz, Bidegain jaunaren irizpideen arabera, horiek guztiak izen ofizialak izan daitezke.

4. Tarteka izen konposatu batzuk sartzen ditu, duen irizpide eza agerian utziz: Aita-Eneko, Aita-Zuria, Anamari, Aneko-Santz, Arnaugillem, Janbatitt, Janpierra, Joanhaurra, Johan-Santz, Lope-Otxoa, Lope-Sanz, Sanz-Anso, Ume zahar...

5. Toponimo nagusiak, grafiari dagokionez, inolako errespetu eta irizpiderik gabe hartzen ditu ponte-izentzat: Aizaroz (ez Aizarotz), Araoz (ez Araotz), Artaza (ez Artatza), Loza (ez Lotza), Olaiiz eta Olaitz (biak), Oloriz (ez Oloritz), Orbaiz (ez Orbaitz), Oriz (ez Oritz), Oteiza (ez Oteitza)... Eta gaztelaniaz ematen dituen azalpenetan, aspaldi honetan euskal forma normalizatua eta ofiziala duten herri izen gehienak erdal grafian idazten ditu: Araya, Echalar, Echalecu, Elvetea, Erviti, Lanz, Leiza, Lesaca...

6. Izenen grafiari dagokionez ere, ez du irizpiderik, batez ere "h" letra erabiltzerakoan. Batzuetan, bi aldaki ematen ditu: Agate / Agathe, Aritz / Harritz, Arkaitz / Harkaitz, Obeko / Hobeko, Ona / HOna... Besteetan, "h" irizpiderik gabe erabiltzen duela erakusten digu: Joanes / Johan, Joanto / Johanko, Joanto, Johanko. Eta kasuren batean ez ditu Euskaltzaindiaren grafia arauak betetzen: Andre-humea. Grafia kontuan, bertze kasu bitxi batzuk ere ez dira falta: Asnar (sic) izena, edo Arroja (sic) Arrosa izenaren aldaera gisa.

7. Patronimikoen erabilera nahasketa bera agertzen da: Aneko-Santz / Lope-Sanz, Mari-Sanz / Marti-Santz, Lopiz / Lopeitz / Lopeiza, Lorentz / Lorenz, Peritz / Periz, Santza / Sanza...

8. Liburuaren *Aitzin-solasean* adierazten du zenbait izen ez direla egokiak ponte-izentzat emateko, eta "gure zerrendatik izen bat edo beste kentzea gure gain hartu dugu, iruditu baitzaigu haur bati izen horren emaitza ez zela oso egokia izanen" erraten badu ere, zerrendan agertzen dira haur bati jartzeko batere egokiak ez diren Ume zahar eta Zarra izenak.

9. Asmakeria bat edo bertze ere ez da falta. Astiza (sic), Nafarroako As-titz herri izenean oinarritua, eta Artiga (sic), Nafarroako Artika herri izenean oinarritua, emakume izentzat proposatzen du.

10. Azkenik, aipatzen duen bibliografia eta erabiltzen duena ez datoz bat. Beste hitzetan esanda, zein iturritatik lortu ditu, besteak beste, Maria-Esteban (Doneztebe 1566), Maria-Fermin (Ituren 1718), Maria-Matias (Zubieta 1770), Mari-Andres (Ituren 1718), Mari-Antxon (Elgorriaga 1572), Mari-Arano (Do-

neztebe 1566), Mariasunbil (XVI. mendekoa), Mari-Bertiz (Legasa 1573), Mari-Esteban (Doneztebe 1566, Goizueta 1649), Maria-Gartzia (Lekunberri, Leitza, Arano 1721), Maria-Johan (Bidaurreta 1566), Mari-Aoitz (Goldaratz 1558), Mari-Arraioz (Elbete 1726), Mari-Arraiz (Sorauren 1605), Mariauza (Luzaide 1726), Mari-Baztan (Elgorriaga 1626), Mari-Getze (Arlegi 1655)... emakume izenak?

Henrike Knörr,
Onomastika batzordeburua

Andres Iñigo,
Onomastika batzordekidea